

*Sekulako proposamenak
dituen helmuga txikia*

Turismoa Gasteizen - Gasteiz egun batean, bi egunetan edo hiru egunetan

2. eguna: Eraztun berdea eta hiriaren erdigunean



Goizean

Euskadiko hezegune kontinental garrantzitsuenetakoa dauka **2012ko Europako Hiriburu Berdeak**, Salburuakoa. Hurbildu ingurune horretara, eta zoaz [Atariara. Salburuko hezeguneen interpretazio zentrorra](#), leku bakana baita hori, toki natural eder horretako sekretuak sakon ezagutu ahal izateko.

Eta, **bizikletaz ibiltzea gustatzen bazaizu**, Gasteiz da zure hiria. Bat [aloka dezakezu](#), eta [Eraztun Berdean](#) pasealdia egin. Hiria inguratzen eta berori naturaz betetzen duten sei parke handiren multzoa da Eraztun Berdea.

[Eraztun berdea - biraren mapa](#)


Eguerdi

Indarra berreskuratzeko, ez dago pintxo batzuk eta zure gustuko ardoa hartzea baino ezer hobirik; **Arabako Errioxako ardoa** edo **Arabako txakolina** edan ditzakezu, adibidez. Galdetu [Izarren gidaz](#) [turismo-bulegoan](#), eta prestatu zaitez gozatzeko. Bestetik, [Azoka plaza](#) bisitatu dezakezu, gastronomiaren inguruko zentro tematiko aparta bihurtu da-eta. Gastrotaberna erakargarriak, dastaketak eta establezimenduen kalitatea nabarmentzen dira bertan.

Arratsaldean

XIX. mendeko **zabalgunean**, begiratoki zoragarriak dituzten etxe burgesez gain, **Probintzia plaza** edo **Foruen plaza** bitxia bisitatu ditzakezu. **Eduardo Chillida** eskultorearen eta **Peña Ganchegui** arkitektoaren lana izan zen azken hori, eta bertan herri-kirolean aritzeko diseinatu zen. Frontoia eta foruei omenaldia egiteko eskultura daude.

Eta arte onenaren zalea bazara, [Artium museora](#) joatea gomendatzen dizugu; izan ere, Espainiako arte garaikideko bilduma onenetako bat daukan eraikin berezi eta soto-museoa da.



- 1 Ataria. Salburuko hezeguneen interpretazio zentroa.
- 2 Turismo bulegoa
- 3 Azoka plaza
- 4 Probintzia plaza
- 5 Foru plaza
- 6 Artium. Arte Garaikideko Euskal Museoa